

# BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 2458

*EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 26koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2025eko laneko segurtasun eta osasunaren arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdiaren emaitzak argitara ematen dituena.*

### GERTAKARIAK

1.– 2024ko abenduaren 30ean, ebazpen hau argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (252 zk): Ebazpena, 2024ko abenduaren 13koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, laneko segurtasun eta osasunaren arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdia egiten duena.

2.– 2025eko urtarrilaren 31n bukatu zen eskabideak aurkezteko epea; guztira, 1 eskabide aurkeztu ziren.

3.– Eskabideak aztertuta, 2025-08-04an behin-behineko ebazpen-proposamen bat egin zen, jakinarazi zen, eta epe bat ireki zen alegazioak aurkezteko.

4.– Aurkeztutako alegazioak aztertu eta erantzun ondoren (2015-05-13an komunikatu zen), behin betiko ebazpena argitaratzen da, diruz lagundutako jardueraren publikotasun-printzipioa betetzeko, bat etorritik Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26.2 artikularekin.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Laneko segurtasun eta osasunaren arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdia egiten duen Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2024ko abenduaren 13ko Ebazpenaren 21.1 artikulua dioenez, eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Egitura eta Jarduerarako Araudia onartzeko den uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuak emandako eskumenekin bat etorritik, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpen bidez emango edo ukatuko ditu eskatutako dirulaguntzak.

Bigarrena.– Horrenbestez, emandako behin-behineko ebazpena ikusita eta aurkeztutako alegazioak aztertuta, Balioespen Batzordeak proposatuta, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honetako eranskinean baztertu gisa azaltzen diren eskabideak ukatzea.

Bigarrena.– Ebazpen honek bukaera ematen dio administrazio-bideari, eta, hortaz, beronen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Osalaneko zuzendari nagusiari, hilabete epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, bi hilabete epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan. Bi

2025eko ekainaren 4a, asteazkena

kasuetan, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean hasiko da epea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Barakaldo, 2025eko maiatzaren 26a.

OSALANeko zuzendari nagusia,  
LOURDES ISCAR REINA.

## ERANSKINA

## UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	IFK	Titularra	Kausa	Proiektua
0001-0048510	G20053583	Fundación Jose Matia Calvo	(1)	Medikamentuen hautsaren eraginpean diharduten langileen lan-arriskuak prebenitzeko neurrien baterako sorkuntza, helburu honekin: ospitaleko farmazia-zerbitzuetan segurtasuna eta osasun mentala sustatzea.

(1).– Ez du lortu gutxieneko puntuazioa, ebazpen honen 17. artikuluan eskatzen dena: Ebazpena, 2024 abenduaren 13koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, laneko segurtasun eta osasunaren arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdia egiten duena.